

Jantokia

Gure ikastetxean jantokia kudeaketa zuzenekoa da, hau da, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen du.

Atal honetan jantokian ezarri diren arauen laburpena egin nahi dizuegu.



Erreziboak hilaren 2an pasatuko dira hilero.

✘ Jantokiaren ordutegia, 13:00etatik 15:00etara izango da, eta umeek 2 txandatan jango dute:

1. Txandan, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailakoek. 2 urtekoak 12:30etan hasiko dira.

2. Txandan, 4., 5. eta 6.ekoek.

✘ Kuotak hauexek izango dira: Ohiko bazkalkidea: 4 € egunero. Noizbehinkako bazkalkidea: 4,60 € egunero.

✘ Ohiko bazkalkidea izateko, astean gutxienez 4 egunetan erabili behar da jantokia.

✘ Oso beterik dagoenez, ez da ziurta-tzen noizbehinkako bazkalkideentzako lekua. Behar izatekotan, beti aurrez eskatu. Batzuetan, lekua izanda ere, ezin izango dute gelakoekin bazkaldu.

✘ Jantokiko erreziboa, esan diguzuen Banku edo Kutxatik pasatuko da. Harek errezibo bat bueltatzekotan, eskolako zuzendaritzan ordaindu beharko duzue erreziboa gehi bueltatzeagatik banke-txeak kobratzen duen zatia hilabetea bukatu baino lehen. Erreziboak bitan baino gehiagotan bueltatzekotan, Jantokiko Batzordeak OOGri jakinaraziko dio,

harek behar diren neurriak hartzeko.

✘ Hurrengo taulan hilabete bakoitzean ordainduko dena agertzen da.

HILABETEA	5 egun	4 egun
IRAILA	60 €	
URRIA	72 €	60 €
AZAROA	84 €	64 €
ABENDUA	56€	44 €
URTARRILA	68 €	56 €
OTSAILA	76 €	56 €
MARTXOA	88 €	72 €
APIRILA	40 €	32 €
MAIATZA	88 €	68 €
EKAINA	64 €	

☒ Huts egiteak zuzendaritzan jakinaraziko dira bai pertsonalki bai telefonoz edo irakasleari emandako oharren bidez. Hutsegitea 15 egun baino gehiagokoa de-
nean, dagokion dirua itzuliko da. Diru itzul-
pen hauek, maiatzeko erreziboan egingo
dira. Bekadunei ez zaie dirurik itzultzen.


☒ Monitore eta sukaldeko langileak, En-
presa Gastronomikoak (aurten EUREST
enpresak) kontrataturik daude, eta honek,
ikasleei medikazioa ematea debekatzen
die.

☒ Ume batek menu berezia beharko balu,
gaurkotutako mediku-ziurtagiria aurkez-

tuta baino ez litzaioke emango. Beste
ikasle guztiek eguneroko menua jango
dute.

☒ Ume batek epe batean ez badu ezer-
txo ere jaten, gurasoekin hitz egingo
dugu, arazoa bideratzeko. Hala ere, jan
barik jarraitzen badu, ezin izango du
jantokia erabili.

☒ Zuen seme-alabak eskolatik ateratzen
badituzue jantoki ordutegian: 1. txan-
dan jaten badute ezin izango dira
itzuli. 2. txandakoak baldin badira
itzuli ahal izango dira 14:00etan
baino lehenago egiten badute.



Jantokia eskolak eskaintzen duen zerbitzua da, eta borondatezkoa da. Jantokia erabiltzek bere funtzionamendu arauak onartzea dakar ezinbestean.

Jantokiko arduraduna Mentxu da. Berarekin hitz egiteko edozein egunetan egin dezake-
zue, bisita zehaztu ondoren, 12:30etatik 13:30etara. Telefonoa: 94.437.84.09

Zenbaki bera erabil dezakezue edozein mezu emateko.